ZIUR FUNDAZIOAREN HODEIKO ERP TRESNAREN OSTATUA BERRITZEKO ETA MANTENTZE-LANAK EGITEKO BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN ORRIA (ESPTE. ZIUR2025001)

1. AURREKARIAK

Gaur egun, ZIUR Fundazioaren egoitzak ERP Online SOLMICRO tresna du administrazio- eta finantza-kudeaketa guztia egiteko.

Hasierako instalazioa 2024ko irailean egin zenez, konponbidearen ostatua eta hari lotutako azpiegituraren mantentze-lan eguneratua berritu behar dira, zerbitzuaren jarraipena ziurtatzeko.

2. KONTRATUAREN XEDEA

Preskripzio Teknikoen Agiri honen helburua hurrengo 29 hilabeteetan SolMicro hodeian ERP tresna mantentzeko eta ostatua berritzeko kontratua arautuko duten baldintzak ezartzea da.

3. KONTRATUAREN PRESTAZIOEN DESKRIBAPENA

Beharrezkoa da SolMicro Online ERPren mantentze-lanak berritzea, zeinak barne hartzen baititu ostatua, 29 hilabetez, SaaS ereduan, eta hari lotutako mantentze-lanak.

Kontratazioa SolMicro Online tresnara online sartzean datza, Fundazioak egindako jarduerak eguneroko kudeaketa-, administrazio- eta finantza-tresna gisa erabiltzeko.

Tresna horrek funtzionalitate hauek ditu:

- Osagai orokorrak eta dokumentu-kudeaketa
- Kontabilitate orokorra eta aurrekontukoa
- Fakturak eta zergen aitorpenak (PFEZrekin lotutako ereduak lortzeko)
- Kobrantzen eta ordainketen zorroa
- Diruzaintzako simulazioa eta aurreikuspena
- Ibilgetua
- Erosketak
- 2 erabiltzaile konkurrente
- Nominak egiteari dagokionez, tresnak funtzionalitate hauek izan behar ditu:
    - o Osagarri gordinaren/garbiaren araberako kalkulua
    - o Nominen simulazioa: kitapenak, PFEZaren %...
    - o Alten eta bajen berehalako kudeaketa

o Hitzarmenak

o Ordainsari-erregistroaren zerrenda...

ZIUR FUNDAZIOKO ZUZENDARI NAGUSIA

Maria Penilla Azcuenaga

Firmado por PENILLA AZCUENAGA, MARIA (FIRMA) el día 19/03/2025 con un certificado emitido por AC DNIE 004